

## Lantegi Batuak Fundazioak eta Mondragon Unibertsitateak urritasuna duten ikasleentzako beka berri batzuk sustatu dituzte

2017/09/27

Lantegi Batuak Fundazioak eta Mondragon Unibertsitateak urritasuna duten unibertsitate horretako ikasleei zuzendutako lehenengo beka deialdia sustatu dute. Tituludun berriei, graduondo edo masterren bat egiten ari direnei edo 2016-2017 ikasturtean bukatu dutenei zuzenduta daude.

Beka horien helburua urritasuna duten ikasle eta tituludunen lan-aukerak areagotzea da. Horrela, urritasunaren ondorioz lan munduan murgiltzeko zailtasun handiagoak eduki ditzaketen pertsonak beren enplegarritasuna hobetuko dute.

Beka horrek 6 hilabeteko praktikaldia egiteko aukera emango du, ordainduta eta lanaldi osoz (2018ko otsailaren 1etik uztailaren 30era), Lantegi Batuak-en.

Hainbat zerbitzu-motarekin (inklusioa, pertsonak, berrikuntza, dibertsifikazioa, kudeaketa edo marketina), edo jarduera-sektoreekin lotutakoak izan daitezke (industria, automozioa, elektronikoa, logistika, ekipamendu elektrikoa, zerbitzuak, dokumentuen kudeaketa, turismoa, ostalaritza, eta abar). Gainera, leku desberdinetan egingo dira; 22 zentroetakoren batean edo Bizkaiko zerbitzu-sare zabalean.

Eskaerak jasotzeko epea urriaren 2tik azaroaren 17ra bitartekoa izango da, eta Mondragon Unibertsitateko Errektoretzan entregatu beharko dira.



Lantegi Batuak eta Mondragon Unibertsitatearen arteko hitzarmen sinadura